

AITA SANTI ONAINDIA (1909-1996)

Amoroto'n jaio zan eta Larra'n, Markiña'n, Gasteiz'en eta Begoña'n egin ebazan ikasketak. Gero, guda-aurretik eta ostean Hoz de Anero'n (Santander), Gasteiz'en, Logroño'n eta Eibar'en egon zan. Guda ostean eriotzarako epaia emon eutsoen Gudarien kapellau izan zalako, baiña ez zan betetu –eta espetxetik urten ebanean bere nagusiak Hoz de Anero'ko basamortura bialdu eben, “abitua garbitzeko”.

Toli orreitan igaro ebazan amabi urteak izan ezik, bizitza osoa Larra'n igaro eban.

1926n. urtean asi zan idazten Euskal Esnalea'n, 17 urtekoa zala. Gero Teresatxu deunaren bizitzea idatzi eban, baiña au galdu egin da.

1951n. urtean atera eban liburu eder bat “Milla olerki eder”. Guda-ostean lenengo liburua izango da, baiña baitu egin eutsoen eta neskame garbitzailleak atera ebazan batzuk. Gaiñera erbestetik zorion-eskutitzak artu ebazan: Agintariak erbestera bialdu ebezan libururen batzuk, euskerearen alde jokutzen dabela sinistu-erazoteko.

Urte orretan asi zan gero Karmel birtuko dan Karmengo Amaren egutegia ateraten Hoz de Anero'n nagusi zala. 1959n. urtean asi zan Olerti argitaratzen.

65 liburu inguru idatzi ebazan. Eskuaratean erabiltzen dogu 5 ale daukazan Euskal Literatura'ren edestia. Ale bat falta da amaitzeko eta gertu ei dago. Atera-bearrekoa da. Geroago laburpen oso egoki bat argitaratu eban

ikastoletarako, baiña au “h”rik ez eukalako, alboratu egin eben ikastoletatik jaurleriak.

Aldizkarietan asko edatzi eban: Euzkadi, Eguna, Ekin, Karmel, Eusko Gogoa, Zeruko Argia, Olerti, Goiz-Argi, El Bidasoa, Jesus'en Biotzaren Deia, Agur, Príncipe de Viana, Zer, Gure almanaka.

Euskerazaintza'ren batzarretara utsik egin barik etorten zan. Olerki lirikuak egiten be ona zan. Ona emen bat:

BEERANTZA?

Beera oa, eguzki on,
ortzi zear beerantz...
Beera baita, ene erria!
Norantz ote? Norantz?

Illunetik jaikiko ote,
eguzki antzera,
orren bizi opa dugun
askatasun txera?

Ik azken izpiak aulduz,
mendi-bestaldetik
illargia arnas jori,
or jaikiz jadanik.

Bi eskuak alkar-tente
otoitzari nago,
urretxindorrek goizari
baiño be miñago.

Eta ik, ene erri erria,
berantza jotean,
ba al duk norbait goraka
arnasa betean?

OLAZAR'tar Martin'ek

IKUSI JAUNAK EGIÑAK Egi egitan zara bardiñik gabekoa Jaungoiko Altsua, maitasun onenagaz guri begira zagoz Jaun errukitsua. Jaunak lurra egin dau ta onegaz batera urtegi zabala, bitzuak dira eder mendi eta zelaiak ta itxas urdiña. Lurra emankorra da gari, arto ta burdin daukaz babesean, ta itxaso zabalak arrain gozoak daukaz bere biotzeran.	KRISTOREN MAITASUNA Jainkoaren Semea Aitak esanda dator gozonen artera, giza izatea artu Jaun izateaz batera ta dator lurrera. Mutiltxo baten eraz Jainko bera izanik amagaz bizi da, Gizadia maite dau argitasun guztiaz Jaungoiko erara. Biotz barruan dauka egiteko aundia salbamen bidean, alan be gogo onez gizadia maite dau gogo onenean.	APALEINTZUTEN DAUTSE Jesus, apal, bizi da aita orde ta amagaz Nazaret maitian, bizi Jaubea dana era orretan dabil gizonen artian. Egi pozgarria da Jesus gizonen aldez, gogoz, ikustea, Aitaren izenean ume aro bertatik esana eitea. Jainko Semea zana edozein mutil antzera dabil gizartean, apalak dauz gogoan, beti, ondo, arturik gizonen artean.	JESUS KURUTZEAN Ikaragarriena ikusteko egoan gizadi larria, lurraren Jabe zana Aitarekin batean nai dabe iltia. Jesus gizon antzer agertzen zan bakarrik lagunen artian, iltea asmau eben Jainko Semea zana lurraren aurrian. Egun larri aretan aldatz gora daroe Golgota mendira, billotxik ipinita Kurutzean il eben lurrera begira.
PAULIN			